# DAGOENEKO EZ DAGO AITZAKIARIK!
# ATZERAPAUSORIK GABEKO HITZARMENA ORAIN!

2 urte baino gehiago eta negoziazio mahai asko daramatzagu 2024ko otsailaren 5ean Greba Amaierako Akordioa (GAA) sinatu genuenetik. Gaur, 2026ko maiatzaren 18an, astelehena, enegarren negoziazio mahaia dugu, enplegua mantentzeko aldez aurretik deitutako mahai teknikoa edukiz hustuz, KE eta AICE-IZEA patronalek sinatu zuten GAA osorik onar dezaten eta beren puntu guzti-guztietan aplikatzeko konpromisoa har dezaten. Horrek, aurreko hitzarmenarekiko proposamen atzerakoiak kentzearekin batera, beste hitzarmen bat sinatzeko aukera emango liguke. Hori bai, lortu, sinatu eta epaituta ditugun eskubideetan atzerapausoak aplikatu nahi badituzte, ez dute STEILAS, CCOO, LAB eta UGTren babesik izango.

Akordio bat lortzeko, datorren ikasturtetik aurrera eskola-orduen murrizketa aplikatu behar da eta, 25-26 ikasturtean inposatu diguten gehiegizko irakastordua konpentsatu egin behar da, ikasturte oso batean astean irakastordu bat murriztuz, GAA urratu egin baita ikasturte oso batean asteko irakastordu bat murriztean eta norberaren laneko ordu osagarri bihurtzean. Era berean, lan pertsonaleko ordu osagarriak 4tik 5era igo behar dira, eta ikasturte osoan zehar beste ordu osagarri batekin konpentsatu ikasturte honetan aplikatzeari uko egin diotena.

Langile guztientzat eta kontzeptu guztietan sinatutako soldata igoera %16koa da (hala adierazten du Auzitegi Gorenaren epaiak epai irmo batean), baina 2025eko urtarriletik aurrera % 15,43ra murriztu zuten DBH, Batxilergoa eta LHko irakasleentzat. STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek ez dute sektoreko 9000 langileei lortutako eskubideak kenduko dizkien hitzarmenik sinatuko.

Beste oztopo batzuk dira KEk eta AICE-IZEAk aurreko negoziazio mahaietan planteatu zituzten atzerapausoak, hala nola hitzarmenak ematen duen baimen-eguna aldatzea ebakuntza, ospitaleratze, heriotza... kasuetan. Era berean, 6 hilabetetik gorako iraupena duten kontratuak lehen egunetik mugagabeak izan behar direla edo antzinatasunerako ikastetxe berean lan egindako aldi guztiak zenbatu behar direla aipatzen duten artikuluak ez dituzte argi eta garbi idatzita utzi nahi. Era berean, administrazioko langileei birkokatzeko eskubidea kendu nahi diete, eta uko egin diote TEJIen urteko orduen murrizketa lanegunen murrizketarekin egiteari. Halaber lan egindako urte bakoitzeko 26 eguneko kalte-ordainak denbora mugarik ez izateko eskubidea ere badugu, eta ikasgela ixteagatik kaleratze kasuetarako sinatuta dugun eskubide hori ere kendu nahi digute.

Lehen adierazitako langileen eskubide guztiak 17-21 hitzarmenean edota GAAn jasota ditugu, eta STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek eskubide guzti-guzti horiek defendatuko dituzte.

KE eta AICE-IZEA, azkenean, GAAn eta aurreko hitzarmenean sinatutako akordioak betetzeko asmoarekin etortzea nahi eta espero dugu. Hala bada, gure lankidetza eta sinadura izango dute, baina hitzarmen berrian langileen eskubideetan atzerapausoak txertatu nahi badituzte, STEILAS, CCOO, LAB eta UGTren erresistentzia aurkituko dute.

steilas CCOO irakaskuntza LAB UGT Zerbitzu Publikoak Irakaskuntza

# ¡YA NO HAY EXCUSAS!

# ¡CONVENIO SIN RETROCESOS, YA!

Llevamos más de 2 años y muchas mesas de negociación desde que el 5 de febrero de 2024 firmáramos el Acuerdo Fin de Huelga (AFH). Hoy, lunes 18 de mayo de 2026, tenemos la enésima mesa de negociación, tras vaciar de contenido la convocada mesa técnica previa para el mantenimiento del empleo, para que las patronales KE y AICE-IZEA acepten en su totalidad el AFH que firmaron y se comprometan a aplicarlo en todos y cada uno de sus puntos. Esto, junto con la retirada de las propuestas regresivas respecto al anterior convenio, nos llevaría a posibilitar la firma de un nuevo convenio. Eso sí, si lo que pretenden es aplicar retrocesos en los derechos conseguidos, firmados y sentenciados, no contarán con el apoyo de STEILAS, CCOO, LAB y UGT.

Para conseguir un acuerdo debe aplicarse la reducción lectiva a partir del próximo curso, y debe ser compensada la hora lectiva de más que nos han impuesto durante el curso 25-26 vulnerando con ello el AFH en la reducción de una hora lectiva semanal y su conversión en una hora complementaria de trabajo personal durante un curso completo. Del mismo modo deben aumentar las horas complementarias de trabajo personal de 4 a 5 y, compensar con otra más durante todo un curso la que se han negado a aplicar durante el presente curso.

El incremento salarial pactado para todo el personal y en todos los conceptos es del 16% (así lo indica el Tribunal Supremo en sentencia firme) pero a partir de enero de 2025 lo redujeron al 15,43% al profesorado de ESO, Bachillerato y FP. STEILAS, CCOO, LAB y UGT no firmarán un convenio que reste derechos conseguidos a los y las 9000 trabajadoras del sector.

Otros posibles escollos son una serie de retrocesos que KE y AICE-IZEA plantearon en anteriores mesas de negociación como es la de modificar el permiso que concede el convenio en caso de operación, hospitalización, fallecimiento… También pretenden no redactar con claridad artículos en los que hacen referencia a que los contratos con más de 6 meses de duración deben ser indefinidos desde el primer día o que para la antigüedad computen todos los periodos trabajados en el mismo colegio. También pretenden quitar el derecho a la recolocación del personal de administración o negarse a que la reducción de horas anuales de las TEJI se haga con reducción de días laborables. También tenemos derecho a que las indemnizaciones de 26 días por año trabajado lo sean sin límite de tiempo, y también pretenden quitarnos ese derecho que tenemos firmado para el caso de despidos por cierre de aula.

Todos los derechos de los y las trabajadoras indicados anteriormente los tenemos recogidos en el convenio 17-21 o en el AFH y los sindicatos STEILAS, CCOO, LAB y UGT defenderán todos y cada uno de ellos.

Deseamos y esperamos que KE y AICE-IZEA vengan, por fin, con la intención de cumplir los acuerdos firmados tanto en el AFH como en el anterior convenio. De ser así contarán con nuestra colaboración y firma pero, en el caso de que pretendan insertar en el nuevo convenio retrocesos en los derechos de los y las trabajadoras, se encontrarán con la resistencia de STEILAS, CCOO, LAB y UGT.

steilas | CCOO irakaskuntza | LAB | UGT Zerbitzu Publikoak Irakaskuntza